



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2009-12-01

VII. URTEA 1.841. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Mikel Zabalo: «Guardia zibilen arteko iskanbila izan dela aipatzen da kalean»

**LEITZA** Igandeko tiroketan guardia zibil bat zauritu zen; «beraien arteko istiluak ez dira berriak», dio alkateak

**BERTSIO OFIZIALA** Rubalcaba Barne Ministroak dio «ia seguru» esan daitekeela ETAren atentaturik ez zela egon 7



Larraulera gerturatu zirenek sabela ondo betetzeko aukera ere izan zuten. ASIER IMAZ

## LARRAULEN ERE AZOKAREKIN AMAITU DUTE KULTUR ASTEA

**LARRAUL** Aste osoan ekintzak izan dituzte herrian eta antolatzaileak «gustura» daude herritarrek hauei eman dieten erantzunarekin 4

## Berritze lanen ondoren, ate irekien jardunaldia egin dute

**ALEGIA** Intxurre pilota eskola berriaren aurkezpena egin zuten pasa den larunbatean 5

JOSEBA JAUREGI  
KORRIKALARIA

«Lehen hamar onenen artean sailkatzeagatik oso pozik nago»

**TOLOSA** 8. sailkatu zen Donostiako maratoin 2



Sahara eta Ekuadorko jaiak izan zen herenegun azken ekitaldia. SARA GOMEZ

## Kultur Truke Hamabostaldia amaitu da Ibarra

# libre!

mundari libre borzabul izateko egunkaria libre mundari borzabul izateko

### HITZALDIA

Abenduaren 2an, 20:00etan,  
Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean  
Martxelo Otamendiren hitzaldia

deialdi irekia



www.egunkaria.info

## «Hamar onenen artean sartzeak poz handia eman dit»

**JOSEBA JAUREGI** | Korrikalaria

**Tolosa** » Zortzigarren egin zuen tolosarrak herenegun jokaturako Donostiako Maratoioan; bere marka hobetu zuen.

### ESTI EZEIZA

Donostiako 32. Maratoia jokatu zen herenegun. Bertan, eskualdeko 80 lagunek hartu zuten parte, tartean Joseba Jauregik. Honek, lehendabiziko hamar onenen artean sartzea lortu zuen, zortzigarren eginaz, 2:29:12 denborarekin. Emakumezkoetan, Naiara Arrue tolosarra izan zen, eskualdekoen artean denbora onena egin zuena. 27. saikatu zen, 3:28:10eko denbora eginaz.

### Zer moduz joan zen proba? Gutzura emaitzarekin?

Oso ondo, oso gustura. Nire helburua 2:30:00tik jaistea zen, eta lortu dut. Gainera, hamar onenen artean sartzeak poz handia eman dit.

### Orain arteko markak hobetzea lortu duzu.

Bai, iaz 2:30:39 egin nuen. Lehen aipatu bezala, nire nahia 2:30:00 horretatik jaistea zen, iaz mugan geratu bainintzen. Ilusioa egiten zidan muga hori gaintzeak.

### Helburua jarri bai, baina hau lortzeko aukerak nola ikusten zenuen?

Banekien sasoi onean nengoela, iaz bezalagutxigorabehera. Agian, apurtxo bat hobeto, baina azken batean, maratoi batean, edozein txikieria markak hobe edo okerragoa egin dezakezu. Hau da, eguraldiagatik, taldeagatik... Azken batean, oso mugan zaudenean, edozein detale txiki ere baldintzatu dezake azken emaitza.

### Igandekoan, eguraldiari dagokionean behintzat, baldintzak nahiko onak izan ziren.

Bai, egia esan, iragarritako zegoen eguraldia kontuan hartuz gero, azkenean, ona egin zigun. Udaletxe eta Zurriola aldean haize dezente zebilen baina oro har ongi, ez gara kexatuko.

### Gustuko al duzu Donostiako maratonia?

Bai, azken batean, etxeko maratoi bat da. Marka bat egin nahi izanez gero, oso egokia da hau. Etxean lo egiten baituzte, baita bazkaldu ere. Gainera, ibilbidea oso ona da, oso laua. Bestalde, lagunek ere errazago dute animatzera joateko.

### Batzuen ustez, lasterketa «hottza» da, animatzen jende gutxi dago...

Niretzat ez da horrenbestera, ez nuke esango hotza denik. Egia da, Antiguu inguruan, jende gutxi egoten dela animatzeko, baina kanpoan izan naizen beste maratoi askotan ere gertatzen da hau. Nor-



Helmugara iristen, bigarren Gipuzkoar azkarrena izan zen Jauregi. HITZA

mala da 42 kilometroetan zehar, ibilbide guztian ez egotea jendea zain. Horregatik, itzuli asko ematean aukera ematen die ikusleei korrikalariak gehiagotan ikusteko, eta era berean, lasterkariak, babes-tuagoak gaude. Gainera, aurretik, inoiz baino Tolosaldeko jende gehiago ikusi dut animatzen.

### Maratoi bat prestatzeko, urte guztian egin behar da lana.

Ni urte guztian ibiltzen naiz korrika. Helburu desberdinak izaten ditut, urte hasieran lasterketa motzagoak egiten ditut, eta gero, azken hiru hilabeteak, espreski, maratoi prestatzeko hartzen ditut. Entrenamendu luzeagoak egiten ditut orduan.

### Non entrenatzen zara?

Ikaztegieta eta Alegia aldera joaten naiz entrenatzera, bidegorritik barrena. Beste batzuetan, Villabona aldera joaten naiz. Egunerokoa, Berazubín bueltak edo, Ibarrratik, nahiz Ikaztegieta aldera joanaz entrenatzen naiz.

### Tolosaldean ba al dago korrikarako afiziorik?

Bai eta ez. Badago, baina Goierrri aldean gehiago dagoela uste dut. Gero eta jende gehiago ari da hasten, baina han oraindik eta gehiago.

### Maratoi bat prestatzeko asko sufritu behar al da?

Betikoa da, sufrimendu puntu hori norberak jartzen dio bere buruari. Bukatzea bakarrik bada helburua, ez duzu zertan asko sufritu. Ez da erraza, baina egin dezakezu. Baina zure burua marka bat egitera behartu nahi baduzu, zailagoa da. Esaterako, nik, herenegun, hasieratik sufritu nuen.

### Urtetik urtera, marka hobetzen ari zara, hori zeren ondorio da?

Bost urte inguru daramatzat korrika, eta konstantzia horren ondorioz, zure gorputza hobetuz doa.

Urtetik urtera, pauso bat gorago hasten naiz, gauzak ikasten baina.

### Aurten, emaitzak oso onak izan dira. Maila altua izan al da?

Bai, maila oso altua ikusi dut. Lehen aipatu bezala, oso laua da ibilbidea, eta jende asko etortzen da kanpotik ere bere marka hobetzera. Egunkarrietan irakurri dudanez, parte-hartzaileen ehuneko ia hirurogeita hamarra ez zen gipuzkoarra. Horrek esan nahi du kanpotik ere jende asko etortzen dela. Jendea gero eta hobeto prestatzen da, eta baten gora-beheran, maila oso ona izan da.

### Bakoitzak duen muga horri tamaina hartzea zaila da ezta?

Neurria hartzea zaila da. Egun batean, marka bat egiten baduzu, hurrengoan hau hobetzen saiatzen zara, eta hurrengoan berriro. Baina, azkenean, iristen da une bat, gehiago ezin duzula egin, agian egun txarra daukazula, baina muga gaitu duzu.

### Zein izango da zure hurrengo erronka.

Ziurrenik, San Silbestreko krosean aterako naiz, eta gero atsedean hartuko dut denboraldi batez. Maratonia egin ostean, nekaturat sentitzen zara, fisikoki nahiz psikologikoki. Hori dela eta, Urte Zaharreko lasterketaren ostean, gauzak lasaigo hartzea gustatzen zait, korri egiten jarraitzen dut, baina beste modu batean.

### Maratoi batean, hanketan lan handia egin behar dute, baina buruak ere bai ezta?

Bai, ia hankak baino gehiago. Iristen da une bat non hankak oso nekaturat dauden, eta buruak ez badie aurreraka jarraitzeko agintzen, hankak gero eta motelago joaten dira, eta pisutsuago sentitzen dira. Horregatik, motibazioa ezinbestekoa da.



Larunbatean jokaturako Boulder txapelketako uneetako bat. ASIERIMAZ

## Boulder Txapelketa Aritz Domingezek irabazi du

**Tolosa** » Oargik antolatutako proban 21 lagunek hartu zuten parte; eskualdeko lehenengoa Mikel Etxeberria izan zen.

### ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean, Oargi mendi elkarteak antolatuta IV. Boulder Txapelketa jokatu zen. Bertan 21 lagunek hartu zuten parte, eta donostiar bat izan zen garaile, Aritz Domingez, hain zuzen ere.

Eskalatzaileak elkarte barruan dagoen rokodromoan barrena igo ziren. Batzuk lehendabizikoan lortu zuten sapaira igotzea, beste batzuk berriz, amore eman zuten. Hala ere, denek jaso zituzten bertaratu zirenen animo oihua eta txaloak.

Domingez izan zen probako garailea, eta bere atzetik geratu ziren, hurrenez hurren, Mikel Velasko,

Arrasatekoa eta Xabier Galdos Oartzungoa. Eskualdekoen artean, lehendabiziko geratu zena, sailkapen orokorrean, laugarren izan zen, Mikel Etxeberria Alegiakoa. Denera, Tolosaldeko 12 eskalatzailek hartu zuten parte.

### Oargiren Mendi Hamabostaldia hemen da

Urtero bezala, Merkatu Txikia egingo dute mendi elkarteok, eta horretarako materiala biltzen hasiak dira. Material berria zein bigarren eskukoa bilduko dute Oargin bertan. Asteleheneetik ostiralera 18:00etatik 21:00etara zabalduko dute; asteburuetan eta jai egunetan berriz, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.

Kirol Hamabostaldiaren baitan, proiektio ugari izango dira. Lehendabizikoa hilaren 9an izango da. Antxon Zabalaen eskalatzeari buruzkoa izango da hau.

## Laburrak

### 0-2ko emaitzarekin irabazi dio Tolosak Bergarari

**TOLOSA** » Tolosak Bergarari irabazi dio asteburu honetan. 0-2ko emaitzarekin, eskualdekoen defentsa ezin izan zuten garaitu bergarrek. Partida hasi eta segituan sartu zuten beraien lehendabiziko gola eskualdekoek, eta aurkariek, partida guztian ezin izan zioten bueltarik eman. Asteburuko jarduten ostean, Lurraldeko Ohorezko Mailan, sailkapeneko bederatzigarren postuan aurkitzen dira urdinak, 18 punturekin. Asteburu honetan, Beti Gazteok izango dituzte aurkari, oraingoan ere kanpoan jokatuko dute.

### Gasteizko Ateneo Ikusten taldeari gailendu zaio Ibarra

**IBARRA** » Ibarra Gasteizko Ateneo Ikusten taldea izan zuen aurkari Belabietako kiroldegian jokaturako norgehiagokan. 2-0 irabazi zien arabarrei. Partida bizia eta polita izan zen asteburuko. Hala ere, nabarmenki etxekoek markatu zuten lehiaren bidea, beraiek izan baitziren nagusi hasieratik bukarara. Jardunaldia amaitzeko hamahiru minutu falta zirenean lortu zuten ibarrek golak sartzen hasia. Jon Garmendia eta Cristian Davila izan ziren gola sartzea lortu zutenak. Taldeak erakutsi zuten, sasio oso onean aurkitzen direla.



Mexikoko Carlos Conversoren *Hartza ez zen hartza* emanaldia ikusi ahal izan zuten atzo, gaztetxoek Topic-en. I.T.

## Herrialde Katalanetako eta Asturiasko txotxongiloak gaur, Titirijai jaialdian

**Titirijai** » Gorosabelen eta Topic-en izango dira saio irekiak; beste lau saio izango dira ikastetxeetako gazteei zuzendurikoak.

### INIGO TERRADILLOS

Igandera bitarte Titirijai jaialdiaren eskutik txotxongilo emanaldi ugari gozatzeko aukera izango da herriko hainbat gunetan. Atzokoa, esaterako bost emanaldi izan ziren ikusgai, Quebec, Mexiko, Thailandia, Italia eta euskal talde baten eskutik. Gaurkoan, berriz, sei saio izango dira.

Ikastetxeetako gazteei soilik zuzendurikoak izango dira horietatik lau. Batetik, Leidor aretoan,

Quebec-eko Theatre Sans Fil taldearen eskutik *Patuaren koroa* (La corona del destino) ikusiko dute. Teatro Trapero euskaldunen *Urrun erreinua* ere ikusi ahaliko dute Topic-en; Kultur Etxean, Thailandiako Hobby Hut Puppet Troupe taldearen *Apsara* izango dute ikusgai, eta Gorosabelen Koreako Art Stage San-en *Dalle Story* ikuskizuna.

Herriar guztiei irekiak diren saioak, berriz, bi izango dira. Bata, arratsaldean, Gorosabelen, Asturiasko Teatro Plusen eskutik, *Denbora galdua* (El tiempo perdido) izango da ikusgai. 45 minutuko familia osoari zuzenduriko ikuskizuna eskainiko dute, eskuzko txotxongiloekin lagundurik.

Bestea, Topic-en izango da,

### » GAURKO EGITARUA

■ **18:00.** Asturiasko Teatro Plus taldearen *El tiempo perdido* (45 minutuko iraupena), Gorosabelen. Familia osoarentzat.

■ **20:30.** Herrialde Katalanetako Toni Rumbaoren *A manos llenas* emanaldia (50 minutuko iraupena), Topic-en. Familia osoarentzat.

20:30etik aurrera. Herrialde Katalanetako Toni Rumbaoren *Esku beteka* (A manos llenas) ikusi ahaliko da. Eskularri eta itzalen teknika erabiliz, 50 minutu inguruko familia osoari zuzenduriko saioa izango da. Bestalde, Aranburu jauregiko erakusketak osatuko du gaurko Titirijai egitarua.

## Partaidetzaren jardunaldien bigarren saioa, gaur udaletxean

**Gizartea** » Javier Encina eta Maria Angeles Avila teknikariak izango dira, 19:00etatik aurrera; bihar izango da azken saioa.

### ERREDAKZIOA

Partaidetzaren inguruko jardunaldiekin jarraituz, Javier Encina eta Maria Angeles Avila teknikariak izango dute gaur hitzaldia udaletxeko batzar aretoan, 19:00etatik 20:30era. Las Cabezas de San Juan (Sevilla) herriko udal teknikariak dira biak. Bihar izango da azken saioa, Toni Merino, Kataluniako Rubiako

Udaleko partaidetza teknikariaren, 19:00etatik aurrera udaletxean.

Jardunaldi hauen helburua nagusia, formazioa da eta hiru ikuspegi ezberdin erakutsi nahi dituzte: Alde batetik, formazioa. Bigarren helburutzat, bai hemen eta bai beste toki batzuetan zer egingen den ikusi eta neurri batean baliagarriak izan daitezkeen erreferente edo klabeak eskuratzea litzateke. Hirugarrena berriz edukia, esperientzia, informazioa, hausnarketarako bidea... ematea izango da, eta hortik aurrera beste pauso batzuk eman nahi dituzte Tolosako araudi horren inguruan.

## Merkatu Txikirako materiala biltzen hasiko dira ikasleak

**Tolosa** » Aste honetan bertan dendetatik igaroko dira; abenduaren 26tik urtarrilaren 5era izango da ekimena, Kultur Etxean.

### ERREDAKZIOA

Azken 13 urteetan bezala, Laskorain Ikastolak Merkatu Txikia antolatatu du abenduaren 26tik urtarrilaren 5era, Kultur Etxean. *Bi mundu, helburu bat* lelopean, Indiako Ipar-mendebaldeko Gujarat lurraldean, Sanand herriaren zentru sozial-kulturala eraikitzen laguntzea eta Sahara askeko Meheriz herriaren lehen mailako eskola

eraikitzen eta hornitzen laguntzea izango da helburua. Horretarako Ibarrik misio taldearen eta Tolosaldea Sahararekin elkartearen laguntza izango dute.

Merkatu Txikia ireki aurretik, aste honetan bertan batxilergoko ikasleak Tolosako dendetatik patzaten hasiko dira material eske. Jostailuak, jantziak, liburuak edota altzariak eta brikolaria tresnak bezalakoak eman ahaliko dira, ondoren, Merkatu Txikian salgai jarri ahalizateko. Altzariak Emausekoek (943 45 98 74) biltzeko aukera dago, eta Ikastolara (943 69 71 22) ere deitu daiteke. Beste urteetan jasotako laguntza jasotzea espero dute beste behin.

## Tolosak finalerako txartela

**TOLOSA** » Euskadi Irratiko *Hiru Erregeen Mahaia* saioak antolatuta, Herriarteko Trindoor Txapelketa ari dira jokatzeko. Asteburu honetan, Tolosa eta Ondarroa aritu ziren nor baino nor, eta azkenean tolosarrek lortu zuten finalerako txartela. Ondarroako taldea hobeto aritu zen arrauanean eta korrika, baina txirriinduren gainean Tolosa nagusi izan zen, Josu Agirrek erakustaldia eman zuelako. Igor Otero Hondarribiako arraunlari ohia eta Egoitz Zalakain triatleta dira Tolosako beste taldeideak, eta hauek ere marka ona egin zuten. Abenduaren 26an jokatuko den finalerako zain geratzen dira orain tolosarrak. HITZA



## Laburrak

### Izaba proiektua aurkeztuko dute gaur, Legorretan

**GIZARTEA** » Urritik martxan da Arantzazuko Baketik zentroak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikako Sailak bultzatuta Izaba proiektua. Ekimen honen bidez, bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren osaba-izeba izan nahi duten pertsona eta familia boluntarioen sarea osatu nahi dute Gipuzkoan. Hala, Legorretako udaletxeko batzar aretoan informazio hitzaldia izango da gaur, 19:00etatik aurrera, Tolosaldeko eta Goierriko herritarrei zuzendua. Bertan proiektuaren inguruko helburua eta egitekoak azalduko dituzte, besteak beste.

### Orfeoien Gabonetako kontzerturako sarrerak

**TOLOSA** » Eguberrietako kontzertua eskainiko du Tolosako Orfeia abenduaren 23an, 20:30ean Leidor aretoan. Sarrerak salgai daude, Leidorreko leihatilan, edota Interneten, 12 euroren truke.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Konponketak.** Ordenagailuak konpondu, eguneratu eta zaharberritzen dira. Etxerako zerbitzua. Deitu 633 30 64 56 zenbakira.



Frontoian era guztietako postuak izan ziren eta eguerdi aldean ibili zen jenderik gehien. ASIER IMAZ

## Kultur Asteak izandako erantzunarekin «gustura»

**Larraul** » Aste osoa ekintzez betea izan dute eta antolatzaileak gustura geratu dira ekintzek izan duten erantzunarekin.

### ENERITZ MAIZ

Larraulgo Kultur Astea ere bere amaierara iritsi da. Aste osoa izan dute kultur ekintza ezberdinez gozatzeko larrauldarrak eta baita bertara gerturatu direnak. Haur, gazte eta helduentzako moduko ekintzak prestatu zituzten.

Kultur Asteari hasiera, garai bateko ohiturak berreskuratu asmoz txondorra eginez eman zioten. Aste osoan txondorra behar bezala zaindu ostean, larunbatean desegin zuten eta baita ikatza jaso ere.

Igandean, 10:00etarako prest zegoen bigarren urtez jarraian antolatatu duten azoka. Eguraldi txarra zela-eta frontoian prestatu behar izan zuten eta bertan, herriko produktuak izan ziren nagusi. Barazkiak, esnekiak, eskulanak, artisaunak, gozoak, ... ikusi, dastatu eta erosteko aukera izan zuten. Bertaratutakoentzako pintxoak ere izan ziren eta jendea gustura anima-



Postuen artean, gozoak ere ez ziren falta herenegun azokan. A. IMAZ

ziren zen barra ingurura. Txondorretik ateratako ikatza ere salgai egon zen eta iluntzeko taloak egiteko ere erabili zuten. Arratsaldean, pilota partidak izan zituzten eta baita erakusketa museoan egutegia osatzeko argazkien aukeraketa ere. 18:00etatik aurrera eta Kultur Asteari datorren urtera arte agur esateko, talo eta gaztain jatea egin zuten Katillu-Txulo Elkartearen. Eta haur eta heldurik ez zen falta izan bertan.

**Herritarrek erantzun ona**  
Kultur Astearen inguruko lehen balorazioa egiteko eskatu diogu Xabier Mujika herriko alkateari eta orokorrean «oso gustura» agertu da ekintzek herritarren aldetik izan duten erantzunarekin. Umeen ekintzak «oso arrakastatsua» izan direla azpimarratu du, «ume asko ibili da beraieki zuzendua izan diren, merienda, ipuin kontalari, filma edota jolasetan. Aldiz, astean zehar helduei begira zeuden ekintzetan jendeari gehiago kostatzen zaio parte hartzea», gaineratu du.

Aurtengo Kultur Astearen baitan, nobedadeen artean «txondorra eta egutegia egiteko argazki aukeraketa izan dira eta jende asko inguratu da. Argazki aukeraketan ehun bozkatik gora jaso ditugu», dio Mujikak. Mus txapelketan eta Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendirekin egin zen bertso bazkariarekin ere gustura agertu da «muserako bederziti bikote osatu ziren eta bertso bazkarian ere 30 lagun elkartu ginens». Beraz, osotasunean hartuta «pozik» daude.

## Inkomunikatuak izan diren gazteek torturak salatu dituzte

**Politika** » «Tratu txar psikologikoak eta fisikoak» izan behar izan dituzte. Aritz Lopez tolosarra ere espetxeratua izan da.

### ERREDAKZIOA

Mikel Ayestaran billabonatarra eta Irati Mujika amezketarra bezala, Aritz Lopez tolosarra ere espetxeratu egin du Auzitegi Nazionalako Grande Marlaska epaileak. Aritz Lopez tolosarra Soto del Real espetxera eraman zuten larunbat iluntzean. Atxilotuak izan diren 34 gazteetatik, 31 kartzelan sartu ditu «talde terroristako kide» izateleporatuta.

### Atxilotuen tortura salaketak

Atxilotu eta espetxeratutako izan diren gazteek, torturatuak izan direla salatu dute. Batzuek, «tratu txar psikologikoak» jasan dituzte eta beste batzuek «psikologikoz gain baita fisikoak ere». Informazio guztiz zehatza ez badago ere, ostiral eta larunbatean espetxeratu izan direnak honako salaketak egin dituzte, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakinarazi duenez: Mehatsuak, irainak, presioak, ari-

keta fisikoak eginarazi dizkiete, buruan pistola jarri, barrabiletan kolpatuak izan dira, sexualki jazarriak eta ukimenak ere jasan behar izan dituzte. Heroitza eta bortxaketa mehatsuak, poltsak jartzeko saiakerak, ... Salatu duten zerrenda luzeko batzuk baino ez dira.

Egoera honen aurrean, Euskal Herriko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak ere bere salaketa egin nahi izan du eta beste behin ere «operazio polizial honek torturak izan dituela oinarri» adierazi dute. Bestalde, Nazio Batuen Erakundeak «inkomunikazio egoera kentzeko eskatu eta handik egun gutxira inkomunikazio egoera muturreraino eraman zuten», azpimarratzen dute. Espainiar Gobernuak, «tortura eta bortzikeria» helburu politikoarekin erabiltzen dituela gaineratu nahi izan dute eta «gazterria eta independentzia kolpatzea izan dute helburu «belaunaldi berriak independentziaren aldeko borrokara lotu ez daitezten. Azken batean, «lan politikoa espetxearekin eta torturarekin zigortzen dela Euskal Herriari», adierazi dute.

Bukatzeko, oso modu positiboa baloratu dute, larunbatean Bilbon burutu zen manifestazioa.

## 19 urte dira Zalakin preso erail zutela

**Villabona** » Martuteneko espetxean hil zen atzo hemeretzi urte, bere gaixotasunaren jakitun zirela bihotzekoak jota.

### ERREDAKZIOA

Villabonako Miguel Zalakin preso, billabonatarrek ondo gogoan dute oraindik ere. Duela 19 urte bihotzekoak emanda hil zen Mar-

tuteneko espetxean eta aurretik espainiar estatuko espetxe askotako ziegak ezagutu behar izan zituen. Bere gaixotasunaren jakitun ziren espetxe agintariak baina ez zitoten kasurik egin eta mediku asistentzia kaxkarraren ondorioz, azkenean hil egin zen. Hura atxilotu zuten medikuak akusatuen ahulkian eseri bai baina absolbituak izan ziren. 19 urte berandua, «espetxe politikak bere horretan jarraitzen du», salatu du AAMK.

## Laburrak

### Ohiko osoko Udalbatza egingo dute bihar

**VILLABONA** • Bihar, 20:00etan Ohiko osoko bilkura egingo dute. Jorratuko dituzten gaien artean, Villabonako ezker abertzaleak aurkeztutako mozioa, Tolosaldeko Taxi tarifak onartzea eta eskualdeko ordezkaría izendatzea, edota etxeko laguntza emateko sinatutako hitzarmen berezia.

### Zundaketa lanak Galardi, Iturralde eta Akezkoan

**ZIZURKIL** • Zizurkilgo Udalak herritarrei jakinarazi nahi die Gipuzkoako Foru Aldundiak Zizurkilgo saihesbidearen proiektua dela eta aste honetan bertan egingo dituela proiektu horren trazatua zehazteko beharrezkoak diren zundaketa lanak, Galardi, Iturralde eta Akezko auzoaren goiko aldean.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Elorri bete egin da berritze lanen ondorengo ate irekien ekitaldian

**Alegia** » Intxurre pilota eskola eraberrituaren aurkezpena ere egin zuten hiru herrietako pilotariak bertan zeudela.

### ERREDAKZIOA

Elorri frontoia berritu ondorengo inaugurazio ekitaldia eta Intxurre pilota eskola eratu berriaren aurkezpena egin zuten larunbat arratsaldean. Pilotalekua goraino bete zen. «Ez genuen espero horrelako erantzunik», azaldu du Patxi Renobales Kirol zinegotziak.

Ekitaldiak Alegiako plazan hasi ziren. Alegiako, Altzoko eta Ikaztegiako pilota eskolak bat egin ondoren eratu den Intxurre pilota eskolako pilotariak kalejiran joan ziren frontoiraino. Han taldeko argazkia atera zuten eta ondoren aurrekua dantzatu zitzaie. Garikoitz Llobregat txistulari altzotarra eta Uxue Murua dantzari alegiarrak aritu ziren horretan.

Aurkezpen ekitaldia egin eta gero pilota partidak jokatu zituzten. Herriarteko Bergarako pilota-



Pilotariak kalejira egin zuten inaugurazio ekitaldian. P. RENOBALDES

ri txapelkunak eta Alegiako pilotariak aritu ziren. Partida oso politik ikusi ahal izan ziren. Kadeteetan Gallastegi eta Etxabe bergarrek 22-6 irabazi zioten Murua eta Landa alegiarrei. Jubeniletan Artola eta Zabala alegiarrek 22-10 irabazi zioten Igartua eta Rezusta bergarrei. Nagusien mailan Muguru-

za eta Muguruza bergarrek 22-16 irabazi zioten Elurbe lizartzarra eta Artola alegiarren aurka. Partidak bukatuta, oroigarria eman zitzairen pilotariei eta elkarteei. Ondoren, 25 lagun inguru elkartu ziren afaltzera, tartean pilotariak, elkarteko eta udaleetako ordezkariak.



Goizean ibilaldia egin ondoren Intxurre elkartearen bazkaldia zuten. HITZA

## «Giro onean» Mendi Asanbladako bazkideen eguna

### ERREDAKZIOA

Alegiako Mendi Asanbladako bazkideen eguna ospatu zuen herenegun, urteko azkeneko ibilaldia eginez eta bazkideen arteko bazkariarekin. «Giro onean» eman zuten eguna, Asanbladatik jakinarazi dutenez. Mendi ibilaldira 25 lagun inguru joan ziren. «Nahiko jende, eguraldiak ez baitzuen laguntzen», azaldu dute. Lizartzatik Alegiara bitarteko ibilbidea egin

zuten eta bidean Altzoko zenbait baserri zeharkatu zituzten. Altzon, hain zuzen, egin zuten haiketako.

Bazkaltzeko 40 lagun inguru bildu ziren Intxurre elkartearen. Sukaldariak «babarrun oso goxoak» prestatu zituztela diote Asanbladakoek. Bazkaria eta gero, ohiko moduan, mendiko materiala zozketatu zuten: motxila, mendiko botak, kantineplorak...

## Aurrera-Saiazeko pilotarien emaitza bikainak asteburuan

**Pilota** » Gipuzkoako Txapelketako bi final irabazi zituzten, nagusien ohorezko mailan eta kadete mailan.

### ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiazeko pilotariak emaitza bikainak lortu dituzte asteburuan. Gipuzkoako Txapelketan, nagusien ohorezko mailan, eskolako bi talde elkarren aurka jokatzen zuten eta Onsalo-E. Galarraga bikoteak 22-19 irabazi zion Ioseba Baez-Telletxea bikoteari. Partida gogorra izan zen, 80 minutuko iraupenarekin eta lau pilotariak oso ondo aritu ziren. «Aurtengo afizionatu mailan ikusitako partidarik onena» izan zela azaldu dute Aurrera-Saiazetik. Bestalde, txapelketa berdinean, baina kadete mailan, Aurrera-Saiazeko Eneko Labaka albizurtarrak 18-17 irabazi zion Gaztelekuko Xabier Tolosa anoetarrari. Partida gogorra izan zen eta atzetik joan ondoren azkenean Labakak irabazi zuen.

Beotibarren Diario Vasco Txapelketan, afizionatuen mailan, Urbietako Aurrera-Saiaz-Bolinagak baldia zuten 12-22 Mendinueta-Arretxabaletaren aurka. Rico-Zubirik (Aurrera-Saiaz) irabazi zio-



Eneko Labaka eta Xabier Tolosa, sariekin. HITZA



Ugaiz Renobales (eskuinean) eta Lopez, Egiako Torneoeko txapelkunak. HITZA

ten 22-16 Andreu-Otxotorenari. Matienan jokatutako Baque Torneoaren finalean, kadete mailan Arratibelek (Aurrera-Saiaz) irabazi zion 18-13 Jakari (Zazpi-Isturri). Egiako Torneoaren finalean Reno-

bales (Aurrera-Saiaz)-Lopez bikoteak 22-13 irabazi zioten Armen-dariz-Gorrotzekategiri. Renobalesek Egiako Torneo azken launalak jokatu eta horietatik hiru irabazi ditu.

ASENDURAK 5  
LARUNBATA  
www.gernikaracing.com

Sponsors: BFA, DFB, Dela, Gernika-Lumo, Hitza, etc.

# Ekuadorko eta Saharako jakiekin amaitu dute Kultur Trukea

**Kultura** » Ekuadorko izen bereko, Saharako Tichlaren eta Ibarren arteko senidetzeari eskainitako hamabostaldia izan ohi da.

REBEKA CALVO

Bukatu da urteroko Kultur Truke Hamabostaldia. Igandean amaitu zen plazako Sendi Ekintza elkartearen egindako Ekuadorko eta Saharako jakien dastatzearekin. Urtero egiten den elkartrukea da, izan ere, Ibarra Ekuadorko izen bereko herriarekin eta Saharako Tichlarenekin

senidetuta dago eta «hiru kulturak elkar ezagutzeko beharrezkoa da urtero honelako ekintzak burutzea» herriko alkateak, Txelo Romeoek, esan duenez.

Aipatu moduan herenegun amaitu zen elkartrukea, Romeo bera ere han izan zen eta «oso polita» izan zela dio. «Giro ona izan genuen, kulturen arteko trukea jakien bidez egitea oso polita izan zen», gaineratu du. Eskararik ere luzatu die herritarrei, dena den: «Igandean gerturatutako gehienak Ekuadorkoak eta Saharakoak izan ziren, ibartar gutxi zegoen, ea hurrengora animatzen diren».



Kultur Truke Hamabostaldia azaroaren 17an hasi zen. Hamabost egunetarako antolatutako bederatzi ekintzetan «jende ugari» bildu dela dio alkateak eta horietako bat nabarmendu du, pasa den ostiralekoa, hain zuzen. Ostiralean Ekuadorko Galo Urbinaren *Paella con aji* filma eskaini zuten Kultur Etxean eta alkatearen ustez «Ekuadorko kultura ezagutzeko aukera paregabea» eskaini zuen lanak.



Ekuadorko eta Saharako jakiek dastatzen Sendi Ekintza elkartearen. S. GOMEZ

# Bukatu dituzte Azkue auzoko ludoteka berriko lanak

**Azpiegiturak** » Ibai-Gain kalean zegoena hutsune ugari zituen eta horregatik erabaki zuten 126.075 euro berria egiteko bideratzea.

ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak Azkue auzoko haur-ludotekako obrak amaitu ditu eta lan horiek egiteko 126.075 euroko aurrekontu-saila erabili duela argitu du.

Ludoteka berria Ibai-Gaineko aurreko ludotekaren antzemandako hutsuneak zirela-eta egin dute udal arduradunen hitzetan. «Bertan eskaintzen zen arretaren kalitate hobetzeko zerbitzu hau egokiagoak ziren beste lokal batzuetara eramateko helburua» izan dutela nabarmendu dute.

Behin proiektua zehaztu ondoren, Ibarra Udalak lehiaketa egin zuen zerbitzua esleitzeko eta

bi enpresa aurkeztu zirela argitu dute. Esleipenduna Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba izan zen, 46.000 euroko aurrekontuarekin.

## Aldaketaren arrazoiak

Ibai-Gaineko ludotekako erabilera maila altuak «udal-zerbitzu honek ibartarren artean duen onarpen ona islatzen zuen, baina toki eta higadura arazoak sortzen zituen», zehaztu dute. Udalak, orduan, «instalazio hau zein egoeratan zegoen aztertu zuen eta bere funtzionamendu baldintzak erabakitzen baziren ere, bere kokapena nabarmen hobetu zitekeela frogatu zuen».

Zerbitzu hau Azkuera eramanez, Ibai-Gaineko instalazioetan aldi baterako inbertsioak egin behar izatea ekiditen dela nabarmendu dute.

Ludoteka berriak erabilgarriak diren 110 metro koadro ditu eta

erabiltzaileen beharrei erantzun ahal izateko ekipamendu modernoak du.

Ekintza honi esker haurgehiago hartzeko aukera dago, «Ibarra gizarartearen populazioaren handitzea ekarriko lukeen joerari aurre hartuz, izan ere, egoera berri horrek, asetu beharko lirakeen behar berriak ekarriko lituzke», argitu dute.

## Ikastolako galdara

Bestalde, Udalak Uzturpe ikastolan galdara berri bat pintzeko lanak ere amaitu ditu. Ikastetxeke zuzendariak eginiko eskaerarengatik jarri dute, izan ere, lehen zegoen galdarak ez zituen legez ezarritako baldintzak betetzen.

Udalak, aurrekontuetako zati bat bideratu zuen galdara aretoa berritzeko. Aldi berean, larrialdietako irteera bat ere egokitu dute Uzturpe ikastolako segurtasun sistema osatzu.

# Udalak diru laguntza eskatu du irisgarritasuna hobetu ahal izateko

**Udala** » Euskal Herria, Leaburu eta Idoiaga kaleko zebra-bideak hobetu nahi dituzte, baita Osakidetzaren parekoa ere.

ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak argitu duenez, diru laguntza eskatu dio Eusko Jaurlaritzari udalerriaren irisgarritasuna hobetzeko lanak burutu ahal izateko. Datorren urtean bertan hasi nahi dute zenbait zebra-bide konpontzen «gaur egun duten egoera hobetzeko eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonen beharretara egokitzeko», argitu du Udalak.

Udal arduradunek argitu dute, zenbait arazo topatu dituzte udalerriko zebra-bide batzuetan eta hori dela eta, «Eusko Jaurlari-

tzak irisgarritasun ekintzak burutzeko finkatuta duen laguntza programan eskaera bat aurkeztea erabaki dugu, lanen kostuaren %50 inguruan ibiliko litzatekeen laguntza eskuratzeko xedearrekin».

Berrituko dituzten zebra-bideak Euskal Herria, Leaburu eta Idoiaga kaleetan kokatuta daude. Osakidetzako kontsultetatik gertu dagoena ere hobetuko dute. «Lanek murriztutako mugikortasuna duten pertsonengan eragiten duten oztopoak ezabatuko dituzte eta Irisgarritasun Planak ezartzen duenaren arabera egokitu dira», argitu dute.

Udalak, ekintza honekin, 2006an prestatutako plan batean hartutako konpromisoari erantzun nahi dio. Honen arabera, «pixkanaka, udalerriaren hautematen diren oztopo arkitektonikoak ezabatuko dira».

## Hilberriak

**PATXI ZABALA LERTXUNDI**  
JAUNA

«herenegun hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
-Goian bego-

Bere emaztea: Miren Lasa; seme-alabak: Imanol eta Itziar; bilobak: Unai eta Iñake; anai-arrebak: Kandido (†) eta Bixenta, Pedro (†) eta Maritxu, Kontxi eta Javier, Anttoni eta Antton, Juanito eta M<sup>a</sup> Jesus, Manoli eta Juan; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaldeak.

Haren animaren alde ototz bat eskaltzen duzte eta arren etor zailzetara GAIUR, ASTEARTEA, arratsaldiko BOSTETAN Leaburuko SAN PEDRO parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**TXARAMA-LEABURU**  
2009ko  
abenduen 1a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



Leitzan kuartelaren inguruan tiroak entzun zituzten bizilegunek igande goizaldean. JAGOBA MANTEROLA/ARGAZKI PRESS

## Xabier Zabalo: «Guardia zibilen arteko iskanbila izan zela aipatzen da herrian»

**Tiroketa** » Igande goizean, 03:45ean, Guardia Zibilen kuartelaren inguruan tiroketa bat eta zauritu bat egon zen.

### ASIER IMAZ

Hasieran esan zenaren aurka, igande goizaldean ez zen ETAREN atentatu saiakerarik egon. Hortik aurrera zer gertatu zen jakitea oso zaila da, bertsio desberdinak plazaratu baitira. Tarteen bizilagunek, bertsio ofizialek urrun oraindik ere.

Komunikabideei begiratu, gauza batean jartzen dira ados: «Igandean tiroketa bat egon zen Leitzan eta guardia zibil bat, 34 urteko S. M. Malagarra, zauriturik aurkitzen da Iruñeko Erietxean».

### Bertsio ofiziala

Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Gobernuako Barne ministroak atzo zabaldu zuenez, «ia seguru esan daiteke» ETAREN atentaturik ez zela egon Leitzan. Dena dela, ministroak ez du aitortu nahi izan gertaera muntaia bat izan denik edo ez.

Bi frogen emaitzak argitaratu dira egunkari desberdinetan: «aurkitutako bala ez da ETAK erabiltzen duena, baizik eta Guardia Zibilar erabiltzen duena, eta poliziak tiroa metro bateko distantzietatik jaso zuen».

### Herrian esaten dena

Xabier Zabalo Leitzako alkateak, atzo [apurtu.org](http://apurtu.org) webguneari eskainitako elkarrizketan, galdera askok oraindik erantzunik gabe jarraitzen dutela aipatu zuen: «Udalak dakiena, bizilagunek esaten dutena da: nolabait ere beraien arteko istorioaren bat izandu dela.

Gero berri asko, ordu asko eta gauza asko esan dira baina logika handirik gabe: Gertaerak ordu batean izatea, bizilagunak beste ordu batean mugitu zituzten etxetik, tiro hots edo *rafaga* dezente egondu ziren... zer gertatu zen jakitea nahiko zaila dago».

Bere aldetik, Udala gertaera aztertzen joango dela argitu zuen Zabalo: «Guardia zibilen arteko iskanbila aipatzen da bizilagunen artean; zabaldu diren istorio horiek guztiak horrela ez direla. Oso zaila da batek esandako bertsioa mundu guztiak sinestea baina hor tapatu nahi izan duten zerbait gertatu da: argi guztiak itzali zituzten, ambulanzia argirik eta sirenarik gabe iritsi zen...».

### » KRONOLOGIA

#### Leitza, azaroak 29

■ **03:45.** Tiro hotsak Maxurrenea kuartelaren inguruan. Bizilagunek entzuten dituzte.

■ **06:58.** Espainiako berri agentzia batek «atentatu saiakera» baten albistearen ematen du: «Guardia zibil bat zauriturik aurkitzen da. Kuartel kanpoan mugimendu arraroak ikusi eta tiroketa bat egon da. Lehergailua jartzeko asmoa omen zuen pertsona batek, edo batzuk». Terrorismoaren aurkako iturriek zabaldu omen dute albistearen.

■ **07:22.** Espainiako beste berri agentzia batek uesteko ETAKo kideekin osatzen du albistearen bera. Terrorismoaren aurkako iturriak aipatzen dira.

■ **09:50.** Iturri beretik edanaz, «Guardia Zibilar granadak jaurtitzeko hodiak edo tutuak aurkitu dituela dirudi».

■ **11:00.** ETAREN atentatua izan dela ziurtatz jotzen dute «terrorismoaren aurkako aholseko». Horretaz gain, ondorengo datuak azpi-

Alkatearen esanetan, «beraien arteko istiluak ez dira berriak Leitzan». Aurreko kuartelean horrelako gauzak ere gertatu izan omen dira.

Xabier Zabaloren esanetan herriarrien eta Guardia Zibilen arteko harremana «oso txarra» da: «Nire uestez eurak hona gerra egitera etortzen dira; horregatik dau-de hain urduri. Mentalitate horrekin etortzen dira, armak eskuetan. Azken aste honetan gertaera gehiago bizitu ditugu Leitzan: ostegunean bertan adibidez, *Viva Cristo Rey* oihuka eta legioaren kantak abestuz ibili ziren; kontrolak, hainbat jenderi jarraipenak... nik ueste aste honen *ginda* izan dela igandekoa».

marratzen dituzte: «2002an Urdaxeko kuartel etxearen aurkako eraso» eta Jurdan Martitegi, uestezko ETAKideari aurkitutako dokumentuak. «Horietan, erakuntzen aurka granadak jaurtitzea gomendatzen omen da».

■ **Ondoren.** Gaitzespenak eta elkartasun mezuak. Besteak beste, Diario de Navarraren esanetan, ondorengoak: «UPN, CDN, EA, Nafarroako eta Euskadiko PP eta Ezker Batuarenak». Nafarroako Barne Kontseilariak, Javier Caballero, argi dauka: «kerketak egiten ari dira, baina horrelako atentatu edo tiroketak nondik datozten jakiteko ez da ikerketarik behar».

■ **12:15.** Espainiako Barne Saila hipotesiez hitz egiten hasten da.

■ **13:15.** Iturri beretik muntaiaren aurka aipatzen da. Ikerketak ez omen datoz bat zaurituak esan duenarekin. «Guardia Zibilar erabiltzen duen munizioa bakarrik aurkitu da»; Granadak jaurtitzeko hodia ez da...



Aitor Mendiluze Gipuzkoako Txapelketaren finalean. BERTSOZALE ELKARTEA

## Aitor Mendiluze BECen egongo da abenduaren 13an

**Irura** » Herenegun Donostian jokatu zen azken kanporaketan finalerako txartel guztiak amaitu ziren.

### ERREDAKZIOA

Bertsolari Txapelketa Nagusiko zortzi finalistek izen abizenak dituzte. Herenegun jakin ziren nortzuk izango diren BECen abenduaren 13an, eta horien artean egongo da Iruran bizi den Gipuzkoako txapelduna, Aitor Mendiluze. Berarekin ondorengo 7 bertsolariak egongo dira: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Unai Iturriaga, Aitor Sarriegi eta Sustrai Colina.

Antolakuntzak esan duenez, finala ikusteko sarreak herenegun amaitu ziren. Oraindik eskuragarri daude aldiz finalera joan etorria egiteko autobus txartelak: [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) atarian izango dira salgai abenduaren hiruko gauerdira bitartean. Txartela hartu dutenek txartelean bertan jartzen duen geltokian hartu behar dute autobusa. Herri bakoitzeko

ordutegia abenduaren bostean jakinaraziko da [www.txapelketanagusia.eu](http://www.txapelketanagusia.eu) atarian. Autobus txartela internet bidez eskuratu dutenek posta elektronikoa jasoko dute autobusen irteera orduaren berri.

### Azken finalarrekoak

Maialen Lujanbio izan zen puntu gehien lortu zituena herenegun Donostian. Ondoren, hurrenez hurren, Jon Maia, Aitor Sarriegi, Uxue Alberdi, Arkaitz Estiballes eta Iñaki Gurrutxagalditu ziren.

Bertsogoz 6.000 bertsotzale gerturatu ziren Belodromora, txapelketaren azken finalurrekoak gozatzerako.

Eskerrak emateko orduan, antolakuntzatik ondorengo zerrenda zabaldu zuten: «Donostiako Udaleko Euskara Patronatua, Kirolo Patronatua eta herritarrak, saioaren antolakuntza eskaintako laguntzarengatik. Era berean, eskerrak beroenak Donostiako bertsu eskolari, Orioko Errikotxia Bertsotzale Elkarteari eta Hernaniko Iraulio Pantaleone bertsu eskolako kideei beraien esku hartzeagatik».

## Jaunarena leitzarrak hirutik hiru irabazi ditu

### A. IMAZ

Asteko lehen partidaren asteazkenean jokatu zuen Jon Jaunarenak Lekunberrin, Guillermo Mazo Txapelketaren finalerdia jubeniletan. Lobani 18-6 irabazi zion bertan. Hurrengo egunean, Zaldibarko Txapelketako partida jokatu zuen, Mendinuetaen aurka 22-10 irabaziz. Hirugarrena eta txapela balio izan diona, herenegun jokatu zuen Donosti Gain izeneko txapelketaren baitan. Bolinagarekin bi-

kotea osatuz, promesa mailan, Ezkurdia eta Zinkunegi 11n utzi zituena.

### Lizarrako Txapelketa

Aurrerako pilotariak Nafar Jokoe-tako partidak jokatu zituzten asteburuan. Batzuk berriz Lizarrara joan ziren, bertako Txapelketan parte hartzerako. Anartz Olanok 18 eta 4 irabazi zuen bere partidea eta Mikel Hermandorenak 18-8. Biek kadete mailan jokatu zuten dute.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Titirijai

■ **Tolosa.** 18:00etan Gorosabel auditorioan Asturiaseko Teatro Plus taldearen *El tiempo perdido* obra eta 20:30ean Topic-en Kata-luñiako Toni Rumbauren *Amamos llenas*.  
■ **Tolosa.** Erakusketa: *Quebec-era leihoa*, Aranburu jauregian, igandera arte.

### Deialdiak

■ **Berastegi.** Elkartasun Azoka abenduaren 12tik 18ra: arropa, jostailuak, liburuak, altzariak... jasoko dituzte Muñagorri eskolan azokan salgai jartzeko.  
■ **Tolosa.** Abenduaren 13an BEC-era Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa antolatatu du Galtzaundik. Izen-ematea, egoitzan 9 eurotan (ez bazkideek, 12 euro).  
■ **Tolosa.** Txuletaren Festa abenduaren 5etik 8ra, Zerkausian eta Astelena, Bete Alai, Botarri, Bide eta Usabal jate txeko eta sagardotegiaren 40 eurotan. Izen emateko, 943 69 74 13 telefono zenbakira deituta, edota [tour@tolosaldea.net](mailto:tour@tolosaldea.net) helbidera idatzita.  
■ **Tolosa.** Abenduaren 5ean Durangoko Azokara joateko autobusa antolatatu du Galtzaundik. Izen-ematea, egoitzan 9 eurotan (ez bazkideek, 12).

### Kirola

■ **Tolosa.** Material berri eta 2. eskuko mendiko merkatu txikia Oargi mendi elkartean. Asteleheneetik-Ostiralera 18:00etatik 21:00ak arte, asteburu eta jai egunetan 10:00etatik 13:00ak arte eta 16:00etatik 21:00etara. Bigarren eskuko materiala eraman daiteke hilaren 16tik aurrera, astean zehar 19:00etatik aurrera elkartera. Informazioa, 688 698642 telefono zenbakian.

### Partaidetza jardunaldiak

■ **Tolosa.** Javier Encina eta Maria Angeles Avilaren partaidetza jardunaldia 19:00etatik 20:30era udaletxeko batzar aretoan. Las Cabezas de San Juan (Sevilla) herriko udal teknikariak dira.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz-azoa, 9. 943 675118.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

# Kantu bidez ere, babestuak

## 'Egunkaria auzia' »

Kantaldian abenduaren 19an Bilbon egingo duten manifestazio nazionalerako deia egin zuten.

### ERREDAKZIOA

Donostiako Kursaal jauregia txiki geratu zen pasa den larunbat iluntzean *Egunkaria auzi*-ko auzipetuei babes emateko antolatutako kantu jaialdirako. Jaialdia heldu den abenduaren 19an Bilbon egingo duten manifestazio nazionalaren deialdia egiteko ere bideratu zuten, bide batez. Kantu batean, eta umore onean, baina auziak sortzen dien kezka ezkatuta gabe adierazi zieten euren elkartasuna bertaratuak

Auzipetuek, Martxelo Otamendi tolosarra tarteen, abenduaren 15ean hasiko den epaiketara joateko indarrez hornitu ziren larunbatean, jendearen babesean.

### Musikariaren hitzak

Ekitaldiaren arrakastaren ezinbesteko giltza izan ziren kantu jaialdian parte hartu zuten musikariak. Zerrenda luzea izan zen; ez zeuden isilik egoteko. Gatibuko abeslari Alex Sagarduik esan zuen:



la bi mila lagun bildu ziren pasa den larunbatean Kursalean, Egunkaria libre kantaldian. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

«Adierazpen askatasuna badaukagu, batzuek behintzat, eta aprobetxatu egin behar dugu». Guztiek adierazi zuten beren mezua, baikoitzak bere erara.

Aurkezle lanetan Arantxa Iturbe alegiarra izan zen. Aurkezpenaren esan bezala, esanda bezala, «batzuek ezin etorri eta besteak koardilari etorri dira».

### «Egunkaria aurrera!»

Auzipetuen agerraldia eta gero, amaitzeko, abeslari guztiek eta auditorioan zeuden pertsona guztiek elkarrekin abestu zuten Andoni Egañaren Zaku berean bertso sortuta. Giro hartan, guztiak zutik eta txaloka amaitu zen jaialdia, pankartak eskuan eta oihuka: «Egunkaria aurrera!».

### «Apuntatu abenduaren 19a zuen agendan»

«Hartu zuen agenda eta apuntatu itzazue egun bat eta hiri bat: Abenduak 19, Bilbo. Euskal Herriko hiribururik handieneko kale zabaletan manifestazio erraldoia abiarazi nahi dugu *Egunkaria libre!* goiburuarren atzean». Gisa honetan egin zuten deialdia auzipetuek.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Zorionak Aritz.** Besarkada bat eta animo!



### Urte askoan!

**Izaskun Tobes Aizpurua (Tolosa).** Zorionak zure urtebetetze egunean zure izeba Isaren partetik.